

“Zure familia, baldintza onetan”



Antton oso gizon aktibo eta karismatikoa zen. Berdin zitzaion eguna ongi edo gaizki joan. Irribarre egiten zuenean, zuk ere irribarre egiten zenuen. Bere enpresa sortu nahi zuen, negozio baten jabe izan, eta hazten ikusi. Horregatik, gogor egiten zuen lan; hala ere, beti gordetzen zuen denbora bere familiarentzat, zoriontsu zen eta haiekin dibertitzen zen. Berea baino bitzta hobea eman nahi zien.

Anttonek bere enpresa sortu zuen, eta, handik gutxira, 7 lagun ere kontratatu zituen. Oso harreman ona zuten, eta haien lan ona Osasun aseguru batekin saritzea erabaki zuen. Bizi poliza bat ere kontratatu zuen berak.

Denboran aurrera egin ahala, enpresa hazten joan zen, eta Anttonek negozioa handitu zuen: bi lokal erosi eta langile gehiago kontratatu zituen. Polizak ikuskatu eta estaldurak handitzeko garaia zen. Negozioa arrakastatsua zen, eta beste etxe bat erostea erabaki zuten, oroitzapen berriak sortzeko.

“Urriaren amaieran, nire senarrak pentsatu zuen armiarma batek heldu ziola. Medikua-

rengana joan, eta 6 aste geroago, melanoma diagnostikatu zioten, baita metastasia ere”.

“Nire senarrak Bizi Asegurua kontratatu izan ez balu, auskalo zer gertatuko zatekeen. Ezin izango nuen negozioa martxan mantendu. Ez nintzatekeen gai izango zaitzen dudak bezala zaintzeko. Segur aski, ez ginateke hemen ere biziko”.

Gaur egun, primeran funtzionatzen du enpresak, langile guztiak mantentzen ditu, eta irabaziak ditu; izan ere, Anttonek familiak eta bere langileek euren bizitzekin jarraitu ahal izan dute, hala eta guztiz ere.

“Oso garrantzitsua da zure senideei lagundu ahal izatea”.

Horrelako lekukotza gehiago behar dituzu bizi aseguruetan pentsatzeko? Irakur ezazu...

“Nik larrialdietan egiten dut lan, eta pertsona baten bitzta segundo batzuetan aldatzen duten muturreko egoerak ikusten ditut. Izan ere, bizia ez dizu inork aseguratzen... Zu ez zaudenean zure familia baldintza onetan egon dadin egiten duzu bizi aseguru”.

Ez nator Martetik, zuretzat lan egiten dut eta zera naiz...

Azken teknologiek galdutako alpinisten, suteen eta bestelako hondamendi handien ezinezko argazkiak ateratzeko modua ematen dute. Gure aseguru-artekaritzarekin lan egiten duten aseguru-etxeek sistema horiek dituzte, jada, perituen lana errazteko.

Segur aski, asmatu duzu DRONEI buruz ari garela. Halakoak existitu baino lehen, oso neketsua zen txingor-zaparrada batek, ur-goraldi batek edo sute batek hondatutako hektarea-kopurua neurtzea; nekazaritza-sail handietan, egunak behar izaten dituzten perituek neurriak hartzeko, eta ez dituzte emaitza zehatzak lortzen.

Drone batek kaltetutako eremu baten gainetik hegan egiteko eta, oso denbora gutxian, informazio guztia tableta batean zehatz-mehatz deskargatzeko aukera ematen du. Zer esan nahi du horrek? Ezbehar bat ebazteko denbora gutxiago behar dela eta gure bezero aseguratuek lehenbailehen jaso ditzaketela euren kalte-ordainak.

Teknologia horrek alferrikako arriskuak saihesten ditu, sute baten lehen balorazioak egiterakoan. Instalazio industrialak ikuskatzeko ere erabiltzen dira, ezbehar baten ondoren, bai eta indusketa sakonak behar dituzten lan zibiletan ere.

Azken batean, aseguruaren sektorean, **segurtasuna, kostuen aurrezte eta, hortaz, ebazpen-denborak bizkortzea** dakarte droneek.



“Be water my friend” (izan ura, lagun)



“Hustu zure burua.
Libratu itxurez... Ura bezala.
Jarri ura katiluan,
eta katilu izango zara.
Jarri botilan, eta botila izango zara.
Jarri teontzian,
eta teontzi izango zara.
Urak jario egin dezake, edo kolpatu.
Izan ura, lagun”.

Bruce Lee-k hitz horiek erabili zituen iragarki batean, hil eta urte batzuetara. Izan ere, **aldaketetara egokitu** izanari esker iraun du bizirik gizakiak, historian zehar.

XX. mendearen hasieran, soroak zaldiekin goldatzen ziren; gaur egun, berriz, traktoreak erabiltzen dira. Ura ubideetara pasatzeko, aitzurrarekin ildaskak ireki eta itxiz ureztatzen zen. Gaur egun, automatikoa izaten da ureztatzea, eta telefono inteligente batetik ere kontrola daiteke.

Datozen egunetako eguraldia aurreikus dezakegu, baina ezin ditugu alde aurretik neurtu harriak soroetan eragin ditzakeen kalteak. Kostuak altuak dira eta, batzuetan, urte osoko lana galtzea ekartzen dute.

Zorionez, aldaketetara egokituta daude nekazaritza aseguruak, eta ezinbestekoak dira hainbat ustiategitan. Espainian, nekazariak kontrola ezin ditzakeen fenomenoak estaltzen dituzte poliza horiek: suteak, harria, uholdeak...

Historia apur bat

Gure herrialdean, 1917an sortu ziren **abeltzaintza eta nekazaritza aseguruak**, behin betiko 1978an ezarri baziren ere.

Aseguru horiei esker, ustiategiarekin aurrera jarraitu ahal izatea bermatu zaie nekazariari zein abeltzainari, ezberhar kasuan kalte-ordainak ordainduta. Konpentsazio ekonomikoa jasandako kaltearen eta kontratatutako estalduraren arabera izango da.

Poliza horiek errenta-maila konstantea mantentzen dute eta ekizlearen kaudimen finantzarioa indartzen dute. Hala, zuhurrenek us tiapen-kostu finkoen parte gisa kalkulatzen dute primaren ordainketa.

Gomendio

Begirada, bizitzaren ispilu... baita gidatzerakoan ere

“Urrunago ikustea lortu badut, erraldoien bizkarrera igo naizelako izan da”. **Bernardo de Chartres.**

Bizitzan, garrantzitsua da epe luzera planifikatzea, baina baita auto bat edo moto bat gidatzerakoan ere. Begiradak bereizten ditu gidari ona eta txarra. Atzerako ispiluek eta GPS nabigatzaileek 360°-ko ikuspegia ematen dute, eta seguruago gidatzen laguntzen digute.

Nora begiratu behar da?

Urrun, aurrea hartzeko eta aurrean zer gertatzen den jakiteko.

Ezkerrean, eskuinera eta atzera. Inor hurbiltzen edo aurreratzen ari zaigun jakiteko.

Ingurura, oinezkoak, autobusak edo beste ibilgailuak ikusteko.

Eta bihurguneetan, eremua aztertu eta irteera bilatu.

Gidatze printzipio horiek zure eguneroko bizitzara eramanez gero, funtzionatu egiten dutela ikusiko duzu.



Anekdotak

Zoratuta zurekin

“Eskerrik asko Osasun Mentaleko Instituturara deitzeagatik, erokeria uneetan konpainia osasuntsuenera:

- **Obsesibo-konpulsioa bazara, sakatu 1 hainbat aldiz.**

- **Kodependientea bazara, eskatu norbaiti zure ordez 2 sakatzeko.**

- **Autoestimua baxu baduzu, eskegi telefonoa, mesedez. Gure operadoreak lanpetuta daude kasu garrantzitsuagoei kasu egiten”.**

Infernuetara jaisten den eskailera baten antzekoa da udazkena. Horren antzeko zerbait esan zuen Rosenthal irakasleak, argi falta dela-eta herritarren %20k udazkenean eta neguan depresio sintomak dituztela adierazi zunean.

Medikuarengana sintoma horiekin joanez gero, txisteko antzeko erantzunak aurki ditzakezu. Gure aseguru artekaritzan **si osasun aseguruak tratamendu psikologikoak estaltzen dituzten** galdetzen digute. Erantzuna: **ongi kontratatuta badago, BAI.** Saio terapeutikoak ere sartuta egon daitezke. Interes atzen? Kontsulta iezaguzu.

